

## 40.000 Coca-Cola poto bildu dituzte enpresari katalanez etiketatzeko eskatzeko

MAIATZAREN 31N, 40.000 Coca-Cola poto, *Etiquetas en català* leloa Bartzelonako Catalunya plazako zoruan idazteko. Plataforma per la Llengua gobernuz kanpoko erakundearen ekimena izan da. 1993an, erakundea sortu zenean, ekimen bera egin zuten eta 15.000 poto bildu zituzten. Gauzak asko aldatu ez diren seinale. Coca-Colak bere freskagarriak 200dik gora herrialdetan banatzen ditu eta katalan hiztun kopurua baino gutxiagoko komunitateei euren hizkuntzan etiketatutako produktuak saltzen dizkie.

Coca-Cola adibide bat baino ez da. Plataforma per la Llengua

emandako datuen arabera, Kellogg's, Bayer, Danone, Durex eta Nestlé enpresek Finlandian suedieraz etiketatzen dute, Belgikan frantsesez eta Suitzan alemanez. Herrialde horietan, hizkuntza horietako hiztun kopurua murriztagoa da katalan hiztun kopurua baino.

Katalunian, produktuen %90 ez dago katalanez etiketatuta. Legez, herritarrek eskubidea dute katalanez etiketatutako produktuak izateko eta enpresak eskaintzera derrigortuta daude. Hala ere, enpresek ez dute betetzen eta administrazioak ez du inolako isunik jarri.

20.000 Coca-Cola poto lortu nahi zituzten, eta azkenean bikoitza lortu dute Plataforma per la Llengua elkarteak.

PLATAFORMA PER LA LLENGUA



## Bahea

Mirari Saizar, Berastegiko Hizkuntza zinegotziak Tolosaldeko atarian esanak:



T. ATARIA

"Euskaldunak gutxitzen bainoago, euskararen erabilpena gutxitzen ari den kezka sortu da herritarren artean eta udalean bertan. Beste hainbat herritan bezalaxe, urte gutxitan etxe asko egin dira eta jende asko etorri da hara bizitzera. Batzuek erakutsi dute interesa euskaraz aritzeko, baina beste batzuek ez.

Oro har, bai egon dela atzerapena, batik bat, guraso jendearen artean. Eta ez bakarrik gurasoen artean; geroz eta gehiago entzuten dugu haurrek ere elkarren artean geroz eta gehiago egiten dutela erdaraz. Hori adibidez duela 30 urte ez zen gertatzen. Eta horrek sortu du kezka; hain euskalduna den herri batean zergatik ari den gertatzen hori. Etorri bezala joango den joera ote den edota beste zerbaiten seinale ote den... Kezka hori herritarrei zabaltzeko premia sortu da guraso eta herritar batzuen artean".

## TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

### Gehien irabazten dutenek agintzen dute

GEZURRA DA politikariak eta gobernuek agintzen dutela eta egiten dituztela legeak. Gezurra da European hautatu berriek egingo dituztela legeak eta ezarriko dituztela politikak Europarako. Egiaz agintzen dutenak mundu osoan agintzen duten berak dira: botere taldeak, lobbyak eta halakoak. Soldata milioi-dunak dituzten horiek inposatzen dituzte politikak, gobernuak eta parlamentuak diren arren publikoki ezartzen dituztenak. Haien atzetik baina, betikoak daude: multinazionalak, enpresari handiak, bankuak, espekulatzailak eta inbertsio eta aseguru funts handiak.

Espainiako Estatuan esaterako, berriki ikusi dugu Mariano Rajoy presidentea enpresari nagusiek inguratuta. Eta Troika ere ikusi dugu Bilbon, Urkullu anfitrioi lanak egiten ari zela. Eurak sustatu dituzte lan eta pentsio erreformak, soldata politika murriztaileak eta neurri antisozialak. Eta zeintzuk dira? Espainiako

Estatuan 30 pertsona daude botere ekonomikoaren gailurrean, beraiek "aholkatzen" dituzte politikariak, eta soldatak ere ez dituzte nolanahikoak: Florentino Pérez, ACS enpresako jabea, 4,5 milioi euro; Emilio Botín, Banco Santanderreko presidentea, 3 milioi; Francisco González, BBVAko presidentea, 5,17 milioi; Jose Ignacio Sánchez Galán, Iberdrolako presidentea, 7,44 milioi; Antonio Brufau, Repsoleko presidentea, 5,16 milioi; Cesar Alierta, Telefónica presidentea, 6,5 milioi. IBEX indizeko enpresen kontseilariak euren langileek baino 75 aldiz gehiago irabazten dute. Aurpegia behar da besteei soldatak murriztu eta politika antisozialak ezartzeko. Gehien irabazten duten horiek dira agintzen dutenak, ez unean uneko politikariak.



Juan Mari Arregi